

Bizkaian gizarte-ekintzarako politika lantzeko funtsezko gaiak

EDE Fundazioak antolatutako topaketa baterako prestatutako dokumentua

Hurrengo foru-hauteskundeei begira gizarte-ekintzen politikei buruzko topaketa bat prestatuko denez agente sozialen eta alderdi politikoen artean, dokumentu labur bat idazteko eskatu digute, eztabaida horretarako zenbait gai zehazteko. Gure asmoa zenbait galdera proposatzea eta planteatzea da, testua irakurtzen duenak jakin dezan gai horiek edo beste batzuk ze neurritan eta zentzutan diren funtsezkoak, Bizkaian gizarte-ekintzarako politikak lantzeko.

1. Gizarte-ekintzaren izena eta helburua

Gizarte-ekintzaren arloan eztabaidatu beharreko lehenengo gauza, beharbada, jorratzen ari garen gaiaren izena bera da. Legeak gizarte-zerbitzuei buruz hitz egiten du, eta Aldundiko saila Gizartekintza deitzen da: gauza bera dira? Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritza azkenekoz birmoldatu zenetik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean “ongizatea” eta “gizarte-zerbitzuak” deritzen ekintza-sailak daude. Aldiz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak “bazterketa sozialaren kontrako borroka” edo “familia babestea” moduko ardurak ditu. Zergatik nahasten dira terminoak? Ez du kalterik egiten gizarte-ekintzaren betebeharrak argitzeko? Argitasun estrategikorako oinarri sendoa ematen du?

Aldundiak darabilen terminoa (gizarte-ekintza) gure dokumenturako hartuta, oraingo arazoa da zein den bere edukia, gizarte-ekintzaren edukia definitzea, alegia. Esparru honetan banaketa eman ohi da maila handiko misioen eta benetako ekintza apalagoen artean. Zelan definituko dugu gizarte-ekintzaren misioa? Bazterketa sozialari buruzko prozesuak aurreikustea eta arintzea da misio hori? Oinarrizko beharizanen arloko

gabeziak aurreikustea eta horiei erantzuna ematea da? Gizarte-zerbitzuek dependentziari erantzuten diote? Harremani buruzko beharrianak dira hauek? Prestazio ekonomikoei buruz ari gara? *Gizarte-zerbitzuen* (5/1996 Legea) eta *bazterketa sozialaren kontrako borrokaren* (12/1998 Legea eta 10/2000 Legea) arteko lotura behin behinekoa da, ala egonkorra? Zeren eskubidea dute herritarrek? Zer espero dezakete gizarte-ekintzatik?

2. Gizarte-ekintza eredu bat

Egia esan, gizarte-ekintzaren misioari buruzko galderaren erantzunak zerikusi handia dauka beste galdera batzuei ematen zaien erantzunarekin. Izan ere, erantzun horiek gizarte-ekintza eredu bat osatuz doaz:

- Gizarte-ekintza populazio osoari zuzenduta dago (potenzialki) ala xede-talde (edo *kolektibo*) jakinetako parte diren pertsonen soilik?
- Ze zentzu zehatz ematen diegu *oinarrizko gizarte-zerbitzu* edo *espezializatutako gizarte-zerbitzu* moduko esamoldeei?
- Gizarte-ekintzak ze zentzutan jokatzen du pertsonekin eta ze zentzutan jokatzen du familiarteko, taldeko eta gizarteko sareekin?
- Gizarte-ekintza ze neurritan eta zentzutan da badaezpadakoa, laguntzazkoa, pertsonalki gora egitekoa edo aldaketa sozialekoa?
- Gizarte-ekintza ze neurritan eta zentzutan egiten da autonomoki, eta ze neurritan eta zentzutan egiten da sarean edo beste ekintza batzuekin batera (hezkuntzakoekin, osasunekoekin edo bestelakoekin)?
- Gizarteratzeari buruz ari garenean, gizarte-zerbitzuek zaindutako taldeetako bati dagokion zerbaitez ari gara ala gizarte-zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona guztiei dagokien zerbaitez?

Jakin beharko genukeen beste gauza bat da Bizkaian gizarte-ekintza aplikatzen duen *enpresan sistema zientifiko eta teknologiko* bat dagoen, edo *ikerketa, garapen eta berrikuntza prozesu bat*, galdera horiei erantzuteko. Lehentasun estrategiko baten aurrean gaude? Badakigu zehazki eta kolektiboki zertan ari garen eta egiten ari garen horretan zeintzuk diren ezagutzak eta erreferentzia-tresnak?

3. Gizarte-ekintza eta beharrizan sozialak

Edozelan ere, gizarte-ekintza badago, eta beharrizan ugari ari zaio erantzuna ematen. Askotan konparatzen da Bizkaiko gizarte-zerbitzuen gastua Euskal Autonomia Erkidegoko beste herrialde batzuetako gastuekin. Ohikoa da, baita ere, Espainiako eta Europako beste estatu batzuetako datuak konparatzea. Azkenaldian gizarte-zerbitzuen gastua gehituz joan da: igoera hori nahikoa da, handiagoa izan behar du ala moteldu egin behar da? Ze perspektiba dugu etorkizunerako? Bizkaiko gizarte-ekintzarako politikak ze zentraltasun-maila eta pisu espezifiko dauka (esate baterako, sailen gastuen arabera neurtuta)?

Beste alde batetik, datu kuantitatiboak albo batera utzita, pentsatu behar dugu zeintzuk diren hurrengo urteotan ase behar ditugun beharrizanak edo erronka sozialak. Era berean, argi izan behar dugu beharrizanei izena jartzean itxura ere ematen diegula (eta, azkenean, gizarte-ekintzaren ereduari ere forma ematen diogu). Estrategia hori ze neurritan enfokatuko da fenomeno handietara edo gizarte-prozesu konplexuetara (esate baterako, dependentzia-interdependentzia-autonomia edo bazterketa-gizarteratzea-partaidetza)? Ze neurritan egingo dugu lan eskariaren segmentazio klasikoaren bidez eta kolektiboaren arabera? Ze zentzu dauka *emakumeei* edo *etorkinei* buruz hitz egiteak? Ze neurritan hurbilduko gara mikrosegmentaziora, hartara xede-talde berriengana edo modu berrietan mugatutakoengana jotzeko?

4. Gizarte-ekintza zelan osatzen den

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak dituen hiru mailetan, Aldundien mailak dauka pisurik handiena gizarte-zerbitzuen arloan. Ze neurritan eta zelan pasatzen dira foru-erakundeak gizarte-zerbitzuen artikulazioaren eta sendotzearen *motore* izatera? Ze neurritan eta zelan eraiki zituzten gizarte-ekintza gauzatzeko sareak? Zelan eragiten diote elkarri Eusko Jaurlaritzak eta udalek, esate baterako? Zelan lortzen da koordinazioa eta sinergia, esate baterako, ehunka horniketa-erakunde pribatu txikiz osatutako artxipelago batean? Kontuan hartzen badugu gizarte-zerbitzuaren edo gizarte-ekintzaren sistema publikoa eraikitzeke dagoela, pentsa dezagun ze neurritan eta zentzutan izan dezaketen Aldundiek paper aktiboagoa eraikuntza horretan. Zerk du, orain, garrantzia: eskumenak argitzeak ala sareko lana diseinatzeak?

5. Gizarte-ekintzaren planifikazio eta ebaluazio parte-hartzailea

Oraingo galderaren bidez pentsatzen dugu ze neurritan eta modutan izan daitekeen gizarte-ekintzaren planifikazioa eta ebaluazioa Bizkaiko gizarte-ekintza publikoaren egungo erronketako bat. Zer ulertzen dugu gizarte-ekintza publikoa planifikatzeari buruz ari garenean? Azpiegituren planifikazioa ze neurritan sartzen da planifikazio orokorrako baten barruan? Erakunde batzuen edo besteen plan estrategikoak ze neurritan sartzen dira plan estrategiko orokor batean? Planifikazioan administrazio publikoak baino ez dira sartzen, ala beste agente eta erakunde batzuk ere bai? Parte-hartzeari lekua ematen dioten planifikazio-prozesuak dira? Ze eredu proposatu daiteke planifikatzeko eta erabakiak hartzeko?

Ebaluazioari buruz, berriz, zein da eta zein izan beharko litzateke beharrianak ebaluatzeko sistema? Ebaluazio izena hartzen duten prozesuetan ikuskapena eta kontrola ere sartzen dira? Prozesuei, emaitzei eta eraginei buruzko ebaluaziorik egiten da? Ebaluazioaren bidez, gizarte-ekintza hobetu egiten da etengabe? Ebaluaziorako prozesu egonkorak eta sistematikoak ditugu, ala oraindik konpondu gabeko gaia da hori?

Planifikatzeko eta erabakiak hartzeko (edo ebaluatzeko eta kontrolatzeko) prozesu egonkor hauek pertsonen eta komunitatearen ikuspuntuak, ahotsak, eskariak, satisfazioa edo satisfazio falta jaso behar dute, eta hortxe dute erronka. Parte-hartzearen ze mekanismo mantendu nahi dugu eta zein jarri nahi dugu abian, maila guztietan? Erabakiak hartzeko prozesua zelan dago diseinatuta? Zerbitzuak darabiltzaten pertsonen eskubideak zeintzuk dira? Beharbada, etikaren perspektiba eta metodologia sartzea ekarpen interesgarria izan daiteke, honi guztiari aurre egiteko: zelan egin gehiago eta hobeto?

6. Malgutasuna eta eraginkortasuna

Kudeaketa publiko berria, administrazioa modernizatzea edo gobernua berrasmateza moduko diskurtsoek behin eta berrero gogorarazten digute administrazio publikoaren eta zerbitzu publikoen prozesuak berrikusi egin behar direla, herritarren beharrienei eta eskariei erantzuteko. Azkartu egin behar dira, eraginkor bihurtu eta kostuak jaitsi. Burokratizatzea gure gaitzetako bat dela uste dugu? Hobetzeko aukera izan daiteke hau? Lehentasun politikoa da? Gure gizarte-zerbitzuek ze neurritan eman diezaiekete berriz

ere itxura prozesuetako batzuei, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz?

7. Gizarte-ekintzan diharduten langileak eta aktibo ukiezinak

Bizkaian gaur egun gizarte-ekintza posible egiten duen *giza kapitalari* buruz ere galdetu nahi dugu. Jakin nahi dugu sektore honetako politika publikoek ardura handiagoa hartu behar duten aberastasun hori arretaz zaintzeko. Pertsona horiek trebakuntza-aukerarik egokienak dituzte? Profesionalki aurrera egiteko aukerak ematen zaizkie? Ordainketa-sistema zuzena da eta motibatzen du? Neurri desberdinekin neurtzen da? Gizarte-ekintzan ari diren langileen lan-osasunari buruzko benetako ardura dago? Taldean lan egiteko baldintzak betetzen dira?

Gizarte-ekintzaren izenaren eta balioaren arazoa aurreko galderekin estu-estu lotuta dago. Zelan kudeatzen dugu gizarte-ekintzaren irudia? Ze usain dugu? Babesaren edo paternalismoaren usaina? Gizarte-kontrolarena eta burokraziarena? Gaitasun gutxi izatearena? Langile-mailako aristokraziarena? Elkartasunarena? Berrikuntzarena eta konplexutasun teknikoarena? Gizartearen parte-hartzearena eta gizarte aktiboarena? Harrerarena eta laguntzarena? Zelan aurkezten da gizarte-ekintza barrurantz (esate baterako, langileen kasuan) eta kanporantz (hauteskundeetan ere gizarte-prozesuetan parte hartzen duen komunitatea)?

8. Gizarte-ekintzaren finantzaketa eta ongizatearen sistema mistoa

Gizarte-politikaren inguruko beste eztabaida handietako bat da hau guztia zelan ordainduko den: zer ordaindu behar dute pertsonak? Zer ordaindu behar dute familiek? Zer ordaindu behar da aurrekontu publikoetatik? Erantzukizun soziala darabilten enpresen ekarpena zelan sartzen da?

Beste alde batetik, finantzaketaren auziarekin batera, gizarte-ekintzaren eszenatoki honetako zenbait jokoera ere aztertu behar da: sektore publikoarena, irabazi-asmoa duen sektore pribatuarena, hirugarren sektorearena eta komunitatearena. Kontuan hartzen da zein den familien eta komunitateen sareen onginahia eta kontuan hartzen da guztiz premiazkoa dela ulertzea *emakume zaintzailea desagertzeko arriskuan* dagoela. Zer egin

dezake botere publikoak agenteen arteko sinergia gehiago topatzeko? Zelan indartu daiteke familiaren eta komunitatearen konpromisoa, eta zelan eman dakioke euskarri bat konpromiso horri? Zelan ordenatu daitezke gizarte-ekintzaren barruko azpisektoreak, arau argi eta gardenak sortuz? Zein izango da zuzeneko kudeaketa publikoak hartuko duen espazioa, rola eta jarrera? Horniketa-erakunde pribatuen arteko kompetentzia jasango duten merkatuak edo sasi-merkatuak zeintzuk izango dira? Zeintzuk izango dira erakunde solidarioen aldeko gizarte-klausulak? Ze politika burutuko da borondatezko lanaren sektorean? Balio erantsi berezirik ematen du? Ze neurri hartzeko asmoa dago, finantzaketa-sisteman egonkortasun handiagoa lortzeko?

Fernando Fantova

Bilbon, 2003ko martxoaren 12an

www.fantova.net